

Bigarren Berdintasun Planerako emakumeei deia egin diete

Saiaz Mankomunitatea Bigarren Berdintasun Plana egiten ari da; Albiztur, Bidania-Goiatz, Errezil eta Beizamako emakumeak elkartu nahi dituzte hilaren 22ko bileran // 5

Elkartasun afaria egingo dute bihar, Kenyako hamahiru emakume laguntzeko

‘Afrika, Elkarrekin Bai’ proiektuaren bitartez, sukaldaritza ikasketak egiten ari diren emakumeak lagundu nahi dituzte; Amasako Hika txakolindegian izango da ekitaldia // 6



Atzo egin zuen Tolosaldeko Mankomunitateak ibilgailu berrien aurkezpena, Tolosako Euskal Herria plazan. ITZEA URKIZU

Kamioi jasangarriagoak izango ditu eskualdeak hondakinak biltzeko

Tolosaldeko Mankomunitateak hamasei ibilgailu berriz hornitu du bere flota; dagoeneko martxan diren ibilgailuak isilagoak eta jasangarriagoak direla azaldu dute ordezkariak // 4



Auzolanean egindako erraldoi berria aurkeztuko dute bihar

Tolosako San Esteban auzoko XXXII. kultur astearen barruan aurkeztuko dute biharko pintxo potean, Estebania erraldoia // 4



urrate
BERRI ERAIKUNTZAK S.L.

Etxebizitzak
salgai
LIZARTZAn

Bulegoa: Plazaola kalea z/g LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 51
urrateberri@urrate.eus

Hirugarren agintaldia abiatuko du Josu Amilibiak Adunan alkate gisa eta kargu horretan estreinatu berri da Hernialden, Aitor Zubillaga herritarra. Egoera eta baliabide ezberdinak dituzten bi herri dira, baina bi alkateek lanerako ilusioa eta herritarrekin batera jarduteko gogoia dutela azpimarratu dute

Jon Miranda

Buruari buelta asko eman ondoren EH Bilduko hautagai izatea onartu zuen Josu Amilibia Alsuak (Donostia, 1978) maiatzeko udal hauteskundeetan. Gustura ari da alkate gisa, «oso esperientzia aberasgarria» iruditzen zaio.

Adunako herritarrek zein harreman dute udalarekin?

Herri txikia da eta gertuko harremanak ditugu, udalean ez dago hitzordua aurrez eskatu beharrik zinegotziokin hitz egiteko. Jendearekin komunikazioan sakondu nahi genuke eta horretarako mugikorrenzatzat aplikazio bat prestatzen ari gara.

Txantxaenea izeneko eraikinean egiten ari zareten lanak noiz bukatuko dituzue?

Lanak hasita daude eta aurki bukatzea espero dugu. Liburutegia udaletxeko goiko solairuan dago gaur egun eta bertara lekualdatuko dugu, horretarako altzariak erostekotan gaude egunotan. Gune bat izango da herriari bizitza emango diona. Umeen lokala ere jarriko dugu sotoan, euria egiten duenean gurasoak hurrekin bertan egon daitezten. Terraza handia du lokal horrek eta han

«Txantxaeneak bizitza emango dio herriari»

JOSU AMILIBIA ADUNAKO ALKATEA

Hirugarren agintaldia abiatu du eta zazpi hautetsiz osatutako taldean, lau kide berri izango ditu alboan udal kudeaketan jarduteko.



J.M.

erretiratuentzat ere estalpe bat jartzeko asmoa dugu. Toki itxi bat

izango da, aire egokituarekin eta kalefakzioarekin. Azkeneko asmoa, lokalaren zati batean denda-taberna jartzea da. Saltokiaren kudeaketa lehiaketara aterako dugu eta produktuak saltzeaz gainera, taberna funtzioa beteko du.

Herrian presazko lanik egin beharra ikusten duzue?

Buruan baditugu obra batzuk, baino presazkorik ez. Esate baterako duela gutxi sortu zaigu kontu bat. Gipuzkoako Foru Aldundia GI-3610 errepidea konpontzen ari da Aduna eta Zizurkil artean. Udalak aspaldi eskatu zuen Adunako bidegurutzean semaforoa jartzea, abiadura handiarekin ibiltzen baitira ibilgai-

luak eta segurtasun gutxi dagoelako oinezkoentzat. Ezezkoa esan digute, hortaz, udalak bere kontura jarriko du semaforoa sakaigailuarekin. Orain, prestatuta utzi dugu ingurunea.

Zuek bat egiten duzue Zizurkilgo herritarrek saihe bidea egiteko eskaerarekin?

Zizurkilgo saihe bidearena ez dugu gaizki ikusten. Zizurkilentzat oso mesedegarria izango da, baina eginez gero Adunako egoerari ere irtenbide bat emateko eskatuko dugu. Saihe bidea egiten bada, trafiko guztia, orain konpontzen ari diren errepide horretara bideratuko da eta Villabona-ko zubitik aterako da N-1 errepi-

dera. Hor dago Adunako bidegurutzea eta baita Uparan industria-gunera joateko bidea. Proiektu bat badago idatzita, non errotonda bat aurreikusten den ingurune horretan. Arregi-Etxabe lantegiaren atzealdetik, Unipapel parera konektatuko litzateke errepide berri bat eta Sorabillaraino doanarekin lotuko litzateke, bide zuzena geratuz. Edozein modura, hau ez dago gure esku, Foru Aldundiaren konpetentzia da.

Etxebizitza proiekturik baduzue herrian?

Bai. Duela 10 urteko proiektua dago Kamio inguruko eremuan. Udalak ez du zuzeneko esku hartzerik, baina hitzarmen bidez saiaturako gara etxebizitza horien prezioa mugatzen. Eremu horretan aurreikusita dago alde batean 24 etxebizitza eta beste aldean 18 egitea. Asko dira denak batera egiteko, eta aurrean 24koari heletzea daukagu pentsatuta, beste zatia bigarren fase baterako utziz. Udalak ahalegina egingo du herriaren hazkundearen kontrolatua izan dadin, herrian zenbateko beharra dagoen, horren arabera etxebizitza kopurua egiten saiatuz. Egia da, Adunakoek Adunan geratu nahi izaten dutela.

Zortzi urte daramatza Hernialden bizitzen Aitor Zubillaga Zelaiak (Ibarra, 1986). Udal langileek ematen dizkieten argibideak jarraituz, «pausoz pauso eta pixkana» ikasten ari dela dio.

Herniope izeneko hautagaitzan zerrendaburu aurkeztu zinen. Zergatik?

Aurreko alkatea, Igaro Balda, bere kargua uztera zihoan eta nik urte batzuk neramatzanez Hernialden bizitzen pentsatu nuen herrian parte hartzea ondo legokeela. Ilusioa geneukan eta aurrera egin genuen.

Nola antolatzen zarete udal taldean?

Taldean hartzen ditugu erabakiak. Nik astelehenetan egiten dut lan udalean eta asteko gainerako lau egunetan beste lanpostu batean aritzen naiz.

Etxebizitza berriak egingo dira aurki Hernialden. Noiz hasiko dira lanak?

Udalak urbanizazio lanak egin ditu, ura, gasa eta elektrizitatea pasa ditugu, espaloiak eta farolak jarri dira. Etxebizitzak egiteko hiru baimen eman ditugu jadanik, eta aurki hasiko dira eraikitzen. Guztira, sei etxebizitza tasatu eta lau libre izango dira eta

«Hamar familia berri etorriko dira bizitzera»

AITOR ZUBILLAGA HERNIALDEKO ALKATEA

Herniope hautagaitza independentean aurkeztu zen zerrendaburu udal hauteskundeetan; Zazpi kideetatik sei berriak dira udalgintzan



J.M.

guztiak salduta daude dagoeneko. Epe motzean hamar familia

berri etorriko dira Hernialdera bizitzera.

Zenbat biztanle zarete herrian?

313 gaude errolatuta. Etxebizitza tasatuetara bost familia berri datoz bizitzera eta beste familia bat Hernialdekoa da. Etxebizitza libreetakoak, berriz, herrikoak izanik kanpora joandako eta berritoei bueltan datozen lau familia dira. Gure asmoa herriko belarrialdia berriak herrian geratzea da, herriko bizitzan ere parte hartzea. Bestalde, erretiratuei leku bat eman nahi diegu. Aurten festetan egun bat jarri dugu beraientzat eta 55 bat inguruk parte hartu zuten. 65 urtetik gorako 71 herri-

tar daude herrian. Bada kopuru majoa eta eurak ere animatu nahi ditugu gauzak antolatu ditzaten.

Haur eskolarik edo eskola txiki-rik ez duzue herrian.

Ez, ez dago. Etorkizun batean gustatuko litzaiguke eskola hemen edukitzea, baina umeak behar ditugu horretarako.

Ostatuak, hori bai, martxa polita darama.

Bai. Bizia ematen dio herriari. Jendea mugimenduan dabil hemen eta hori guretzako oso garrantzitsua da.

Bailaraka dago antolatuta herria. Horrek zaildu egiten ditu gauzak?

Zaildu egiten ditu, jendea sakaba-

natu egiten delako. Gauzaren bat antolatzen dugunean, puntu batera elkartzea oso zaila da. Bakoi-tzak bere ohiturak dauzka, batzuk gora joaten dira eta beste batzuk behera. Bailaraz bailara bilerak egin nahi ditugu eta haien kezak entzun nahi ditugu.

Diru baliabide txikiak daukazuela diozue. Zenbateraino baldintzatzen du horrek zuen jarduna?

Dezente. Hemen enpresarik ez dagoenez, herritarrek jarri behar dute aurrekontuaren zati handi bat. Sarrerak murriztzak dira. Gipuzkoako Foru Aldundia eta beste erakundeetara jo behar izaten dugu inbertsio berriak egiteko laguntzen bila. Esate baterako, komun publikoak jarri nahi ditugu plaza inguruan, jendeak nora joan izan dezan. Aztertzen ari gara proiektua. Ahal den toki guztietan laguntzak bilatzen saiatuko gara.

Zeresango zenieke Hernialdeko herritarrei?

Eskerrak eman nahi dizkiet herritar guztiei eta esan nahi diet animatzeko udaletxera etorri eta parte hartzera. Esku zabalik hartuko ditugu eta ahal den neurrian lagunduko diegu.

Biek ezagutu dute, lehen aldiz, nolakoa den herri bateko udaleko jarduna; Iñaki Azpiroz Lizartzako alkateak bera alkatetzara aurkezteko unea zela sentitu zuen; Berrobiko alkate den David de Migueli, aldiz, ezustean egokitu zaio alkate kargua. Hautagaien zerrendan ez zen lehena, baina, taldeak hala erabakita, alkatetzan dihardu.

Iñaki Saizar Artola

Aurten ezagutu du nolakoa den udaleko jarduna Iñaki Azpirozek (Lizartza, 1974). Lanerako gogo eta ilusiorik ez zaiela falta esan du, eta herritarrengandik gertu egoteko asmoz hasi da lanean.

Zer animatu zaitu alkate kargua hartzera?

Aukera hau lehendik ere mahai gainean izan nuen, baina unea orain zela sentitu dut. Zerrendako lehen kideon artean edozein izan zitekeen, eta arrazoi nagusietako bat ordutegiaren malgutasuna izan da, gure kasuan, ez baitago liberaturik.

Zer moduz hasi zarete lanean?

Egia esan lan eta lan gabiltza. Batzorde eraketak, ludoteka, festak eta beste alorretako hainbat gai-ekin konturatzerako pasa zaigu uda. Esperientzia bizia, baina atsegina izaten ari da. Sei laguneko talde bikaina daukat alboan eta horrek lanen banaketarako garrantzi handia du. Ni bat gehiago naiz.

Datozen lau urteetarako zeintzuk dira proiektu nagusiak?

Gure lemarekin bat datozenak: Herri bizia, bizia duen herria. Eskola berritzearen gaia ezinbeste-

«Eskola berritzearen gaia ezinbestekoa da»

IÑAKI AZPIROZ LIZARTZAKO ALKATEA

«Herri bizia» izan dadin lanean hasi da EH Bilduko udal gobernua; kide guztiak dira berriak eta herriaren alde lanean jarraitu nahi dute.

koa da: aurreko legealdietan oztopoak izan genituen uholde arriskuko gunea delako. Oztopo horiek gainditu nahi ditugu aukera berriak mahai gainean jarritz. Horrek, Lizartzako hirigintzaren mapa erabat aldatu dezake. Bestetik, Alondiga eraikina eraberritzea, Tolosarekin elkartuko litza-tekeen bidegorria edota herriko argindarra energia berriztagarriekin hornitzea ere mahai gainean ditugun proiektuak dira.

Baduzue besterik?

Herri solidarioa eta integratzailea ere badira gure proiektu nagusiak, eta noski, emakumeen ahal-duntzea ahaztu gabe. Gaur egun-go eta atzetik datozen belaunal-

diek Lizartzan bizitzeko herri eroso eta erakargarria izatea nahi dugu, betiere ingurune jasangarri batean. Askotan, proiektu nagusiak eraikin eta horrelakoekin lotzen ditugu, baina benetako lana herriko talde, gazte eta gainerako herritarrek aktibatu eta dinamizatzean datza.

Proiektu txikiagoek ere badute lekua.

Hauek ere guretzat garrantzi handikoak dira. Adibidez, Aisa programaren bitartez atzeritarrek euskara ikasteko sei laguneko bi talde osatu ditugu; bertso eskola ere sortzera goaz. Azpiegiturei edo hirigintzari dagokionez, frontoi ondoko edo elizaldera doazen



I. SAIZAR

eskaileren obra, zenbait baserri pisten berritzea edo liburutegian

Ezustean iritsi da Berrobiko alkate izatera David de Miguel (Iruñea, 1993). Hala ere, herriaren alde gauzak egiteko gogoz dagoela esan du.

Zer moduzkoak izan dira lehen hilabeteak alkatetzan?

Lehen hilabeteak bereziki herria ezagutzen pasa ditut. Izan ere, gure egoera paradigmaticoa izan da, ezustean harrapatu baikaitu. Beraz, herriak nola funtzionatzen duen ikusten aritu gara, eta herritarren eskariak entzuten.

Hasi eta jarraian herriko jaiak izan dituzue.

Ekain amaieran sartu ginen udalean, eta lehen egitekoa festak antolatzea zen. Festa batzordearekin batera festak antolatzeko pausoak eman genituen eta uste dut, festa ederrak atera direla.

Herritarrek inharremanetan jartzeko baliagarriak izan dira?

Bai herritarrek eta baita herriko eragile ezberdinekin ere; Guraso elkartearekin, jubilatuekin eta Ibin Kirol Klubarekin harremana izan dugu.

Zer dela eta aurkeztu zinen PSE-EEko zerrendetan?

Hamasei urte nituenetik Euskadiko Ezkerraren Gazteak mugimenduan ibili izan naiz eta ondo-

ren, PSE-EEen afiliatu nintzen. Gipuzkoan, ia herri guztietan aurkeztu ditugu zerrendak, eta ni alderdiaren zerbitzura jarri nintzen eta Berrobiko zerrendetan joatea egokitu zitzaidan.

Ezzinen zerrendako lehena eta zuri egokitu zaizu alkate izatea. Nolatan?

Zerrendak, askotan, presaka egiten dira eta hori ez da posible. Egun, zerrendak eguneratzen eta egokitzen ari gara. Azken batean, Berrobi bezalako herrietarako egiten diren zerrendak zinegotzi bat edo ateratzeko osatzen dira. Zerrendetan joaten diren askok, ez dute zinegotzi kargua hartzeko nahirik. Gure kasuan, ordea, ze-

renda osoa sartu da udalera, eta taldea berrantolatzen ari gara.

Kanpainan, herritar batzuek boto zuria eskatu zuten. Zer harreman duzu herritarrekin?

Naturaltasunez aritu gara. Ez dut aurka etorri zaidan inor topatu. Hartu-emana izan dudana jendearekin ez dut inolako arazorik izan. Herritarrek Berrobik funtzionatu dezan nahi dute eta ni horretarako nago, nire asmoa ez da herria geldiaraztea. Aurretik martxan zeuden proiektuekin jarraitu nahi dut, eta herritarren parte hartzearekin proiektu berriak landu nahi ditut.

Aurreko udal taldearekin harremana izan duzue?



I. SAIZAR

Bai, askotan elkartu gara. Asko lagundu gaituzte eta gustura gaude

zenbait moldaketa lantzen ari gara.

Inguruan industria duen herria da Lizartza. Zer balorazio egiten duzue?

Inguruan eta Lizartzan bertan ere badugu industria. Gertutik jarraitu nahi dugun gaia da. Beraiekin egon eta gertukoak izan nahi dugu. Enpresak erakarri eta daudenekin elkarlana sustatzea da asmoa, herritarrek bertan lan egin dezaten.

Zein da Lizartzaren argazki orokorra?

Herriaren egoera osasuntsua dela uste dut, baina egia da urte guztiak ez direla berdinak izaten eta jaiotze tasak ere gorabeherak izaten dituela. Azken bi hamarkadetan antzeko joera izan dugu eta etorkizunari begira, joera horri eutsi edo handitzea ezinbestekoa da.

Zer esan nahiko zenieke lizartzarrei?

Orain arte gertukoak izan gabela eta gertukoak izaten jarraitu nahi dugula. Lanerako gogo eta ilusiorik ez zaigu falta, baina benetako aktiboak herritarrek beraiek dira. Auzolanean, denon artean herri hau bizi eta biziagoa izateko lan egin behar dugu.

«Eguzki panelak jarriko ditugu udal eraikinetan»

DAVID DE MIGUEL BERROBIKO ALKATEA

Udal hauteskundeetan PSE-EEko hautagaitza izan zen herrian aurkeztutako bakarra; 30 botorekin eserleku guztiak eskuratu zituen.

ren, PSE-EEen afiliatu nintzen. Gipuzkoan, ia herri guztietan aurkeztu ditugu zerrendak, eta ni alderdiaren zerbitzura jarri nintzen eta Berrobiko zerrendetan joatea egokitu zitzaidan.

Ezzinen zerrendako lehena eta zuri egokitu zaizu alkate izatea. Nolatan?

Zerrendak, askotan, presaka egiten dira eta hori ez da posible. Egun, zerrendak eguneratzen eta egokitzen ari gara. Azken batean, Berrobi bezalako herrietarako egiten diren zerrendak zinegotzi bat edo ateratzeko osatzen dira. Zerrendetan joaten diren askok, ez dute zinegotzi kargua hartzeko nahirik. Gure kasuan, ordea, ze-

renda osoa sartu da udalera, eta taldea berrantolatzen ari gara.

Kanpainan, herritar batzuek boto zuria eskatu zuten. Zer harreman duzu herritarrekin?

Naturaltasunez aritu gara. Ez dut aurka etorri zaidan inor topatu. Hartu-emana izan dudana jendearekin ez dut inolako arazorik izan. Herritarrek Berrobik funtzionatu dezan nahi dute eta ni horretarako nago, nire asmoa ez da herria geldiaraztea. Aurretik martxan zeuden proiektuekin jarraitu nahi dut, eta herritarren parte hartzearekin proiektu berriak landu nahi ditut.

Aurreko udal taldearekin harremana izan duzue?



I. SAIZAR

Bai, askotan elkartu gara. Asko lagundu gaituzte eta gustura gaude

egindako erreleboarekin. Udal funtzionamenduaren berri eman digute eta martxan zituzten proiektuak ere azaldu dizkigute.

Zein proiektu landu nahi dituzue agintaldi honetan?

Herriarentzat onuragarriak izan daitezkeen proiektu batzuk identifikatu ditut. Adibidez, erreka ertzean dagoen paseo horretan, aisialdirako edo bainu bat hartzeko gunea bat ezartzea egoki ikusten dugu. Aztertzen ari gara egingarria ote den. Baimenak eta esku-ratzea posible ote den begiratzen ari gara. Beste gai bat ere identifikatu dugu: Ibarra eta Berrobi arteko lotura seguruago bat ezartzea, oinezkoei eta txirrindulariei begira. Errepidea oso estua da eta bihurtzeko asko dituen. Aztertzen ari gara seguruagoa izateko hobekuntzarik egin ote daitekeen. Diru asko da, ordea, eta aldundiak esku hartu beharko luke.

Baduzue beste proiekturik?

Aurreko agintaldian hasi ziren eskolan eguzki panelak jartzeko proiektuarekin. Horrekin jarraitzea da asmoa eta udal eraikin guztietan jarri nahiko nituzke, zentzu guztietan jasangarriagoa delako eta, bereziki, energia kontsumoa murrizteko.

Hondakinak kamioi jasangarriagoek bilduko dituzte

Tolosaldeko Mankomunitateak hamasei ibilgailu berriz hornitu du bere flota, lau urterako kontratazio bat sinatuz; isilagoak eta CO2 igorpen baxuagokoak izango dira



Albo kargako kamioiak izango dira berritzaileenak, CO2 gutxiago isuriz, eta gasoil kontsumoa murriztuz. I. URKIZU

Itzea Urkizu Arsuaga Tolosa

Hondakinen bilketa zentzu guztietan optimizatu nahi du Tolosaldeko Mankomunitateak eta, bide horretan, hamasei ibilgailu berri gehitu dituzte Tolosaldeko 28 herrietako hondakinak biltzeko flotara. Tolosako Euskal Herria plazan egindako aurkezpen agerraldian, Gemma Ezeiza mankomunitateko teknikariak ibilgailuen izaera jasangarria azpimarratu du, besteak beste: CO2 igorpena murriztuko dute kamioi berrieekin, eta baita soinu ere.

Josu Amilibia Tolosaldeko Mankomunitateko lehendakariak datu zehatzak eskaini ditu eta, azaldu du, mankomunitateak lau urteko kontratua sinatu duela FCC eta Serbitzu Elkartek aldi baterako enpresarekin: hitzarmenaren arabera, Tolosaldeko Mankomunitateak 3.275.000 euro ordaindu beharko dio enpresari, urtean.

KARGA SISTEMA ELEKTRIKOA

Hainbat ibilgailu mota eskuratu ditu mankomunitateak, eskualdeko bilketa egoeretara ahalik eta hobekien egokitzeko. Horrela, neurri eta ezaugarriak zehatz-mehatz azaldu dituzte aurkezpenean.

Dena den, hori hala izanik ere, badira ezaugarri azpimarragarriak, ibilgailu guztietan. Batetik, kamioiek pisaketa sistema izango dute, eta horrek edukiontzi bakoitzeko datu zehatzak eskura izatea ahalbidetuko dio mankomunitateari. Herri bakoitzeko bilketaren datuak errazago jasotzearekin batera, puntu zailenak identifikatzeko, eta bilketaren ibilbideak modu eraginkorragoan antolatzeke giltza izango da pisaketa sistemena.

Bestetik, ibilgailu berriek soinu gutxiago aterako dute, horretarako bereziki prestatutakoak baitira: «Kontuan izan behar da, bilketa gehiena herriguneetan egiten dugula, eta askotan gauez». Halaber, kale estuetan barrena bilketa eroso egiteko ibilgailu estuagoak ere txertatu dituzte flota berrian.

Azkenik, Tolosaldeko Mankomunitateko herrietan, hondakinen bilketako CO2 igorpena jaitسي egingo da ibilgailu berrieekin. Karga sistema elektrikoa baliatuz, edukiontziak jaso eta uzterakoan ibilgailuen motorra itzali egingo da, eta ibilgailuek karga sistema elektrikoa baliatuko dute horretarako. Gainera, ibilgailu handienek edukiontziak identifikatzeko sistema bat ere izango dute.

Gemma Ezeizak azaldu du, hamasei ibilgailu berri horiek aurre-

ko kontratuko beste lau ekipotara egokituko direla. Horrela, guztira, flota eta material berria 2.682.177 euroko inbertsioa izan da mankomunitatearentzat.

Ibilgailu berriak lanean ari dira honezkero, hirigune, herrigune nahiz industriguneetako hondakinak bilduz. Gainera, kontratatutako enpresa arduratuko da edukiontziak garbitu eta mantentzeaz ere.

INBERTSIOAK

Albo kargako lau ekipa. 25 metro kubikoko edukiera, herriguneko bilketa.

Atzeko kargako lau ekipa. 8 metro kubikoko edukiera, herriguneko bilketa pertsonalizatua.

Atzeko kargako hiru ekipa. 25 metro kubikoko edukiera, industriguneetako gaikako bilketa.

Kamioi bat. Altzari eta bolumen handiko trasteentzat.

Kamioneta bat. Edukiontzien mugimenduak egiteko.

Furgoi bat. Edukiontziak garbitu eta mantentzeko.

Bi auto. Jarraipenerako.

Edukiontziak. Albo kargako 1.050 eta atzeko kargako 3.000.

GUZTIRA: 2.682.177,67 euro

Nafarroa Oinezera joateko aukera, Galtzaundirekin

TOLOSALDEA // Datorren igandean, Tuteran izango da Nafarroako Oinez. Autobusak 08:30ean irten eta 19:00etan itzuliko dira, eta, autobusa hainbat herritatik pasatuko den bezala, izen-emaitea ere Alegiako kultur etxean, Anoetako ikastolan, Ikaztegieta-ko ostatuan, Irurako ikastolan, Tolosako Galtzaundiren bulegoan, Villabonako Zubimusu ikastolan eta Zizurkilgo Ernio bidea 9n egin ahal izango da, bihar bitarte, 12 edo 10 euroan.

Lasa eta Zabala omenaldia, gaur, Olarraingo txokoan

TOLOSA // Joxean Lasa eta Joxi Zabala tolosarrak bahitu, torturako eta erail zituzteneko 36. urteurrena izan zen atzo, urriaren 15ean. Efemeridea gogora ekarriz, Lasa eta Zabala urteroko omenaldi eta lore eskaintza jasoko dute, senide, lagun eta herritarren eskutik, gaur iluntzean, Olarraingo txokoan. *Bakea eta askatasuna* leloa aukeratu dute antolatzaileek, eta ekitaldia 19:30ak inguruan hasiko da, urteroko lekuan.

Estebania erraldoia aurkeztuko dute San Esteban auzoan

I. Urkizu Tolosa

Joan den urriaren 12an, Tolosako Herri Krosarekin abiarazi zuten, San Esteban auzoan, XXXII. kultur astea. Asteburuko hitzorduak atzean utzita, bihar ekingo diote, berriz, egitarauari, eta aurtengoak badu hitzordu berezi-berezi bat: Estebania erraldoia aurkeztuko dute.

Auzolanean eraiki dute Estebania, eta Oihana Sanchez auzo elkarteko kideak azaldu du, San Esteban auzoko emakumeei omenaldi bat egiteko asmoa izan zela auzolanaren pizgarri: «Garai batean, gure auzoko emakumeak barazki eta esnekiak saltzera jaisten ziren herrira, eta horiek omendu nahi izan ditugu. Bizimodu hori galdu da eta, ondo-

rioz, irudi hori ere bai. Gure seme-alabek ez dute hori ezagutuko eta, beraz, omenaldia egitearekin batera, ezagutza hori ere transmititu nahi genuke».

Zenbait hilabetez aritu dira lanean, josten zekitenek arropa josiz, eskulanetan trebe direnak burua eraikiz, eta iturgin zenbait erraldoiaren besoetarako materiala moldatuz.

Horrela, erraldoiaren aurkezpen ofiziala bihar, 19:00etako pintxo potean egingo duten arren, larunbateko krosetan lehenengo irteeratxo egin zuen Estebaniak, haur eta gaztetxoengozamenerako.

San Esteban auzoko XXXII. kultur asteko egitarau osoa ikusgai dago www.ataria.eus -eko agendan.



Joan den larunbatean irten zen, estreinakoz, Estebania kalera. J. ARTUTXA

II. Berdintasun Planak emakumeen ahotsa behar du

Saiaz Mankomunitatea II. Berdintasun Plana egiten ari da, eta hilaren 22an, Albiztur, Bidania-Goiatz, Errezil eta Beizamako emakumeek hitzordua dute

Eneritz Maiz Etxarri
Albiztur / Bidania-Goiatz

Saiaz mankomunitatea II. Berdintasun Plana aurrera eramateko lanean buru-belarri sartu da, eta Albiztur, Bidania-Goiatz, Beizama eta Errezilgo emakumeak elkartzea dute xede.

II. Berdintasun Plana gauzatzeko, lehenik eta behin, ordezkari politikoei eta teknikoei hasi dira, aurkezpen bat eginez. «Nora goazen eta non gauden azaldu zaie», dio Elena Rikondo gizarte langileak, eta «beraien hitza ere oso garrantzitsua dela konturatzeko» baliatu dute. «Lan asko egin nahi dugu eta egin dezakegu, baina ez badugu ordezkari politikoen babesik, ez daukagu zer eginik». Mankomunitateko lehendakari den Agurtzane Zelaia dio, «egoeratik behar-

tuta gaude hor egotera». Eta «honetako gai konplexu batean formakuntza oso garrantzitsua da, eta baita ordezkari politikoen ere, eta formazioan jarri dugu begirada», gaineratu du gizarte langileak.

Zirriborroa egin dute, eta lantzen ari dira. Elkargune edo foro bat sortu nahi dute, baina «balintzak betetzen diren edo jendeak nahi duen ikusiko dugu talde dinamiken bidez», azaldu du Rikondok, eta Zelaia gaineratu, «nik uste dut baietz, beharra badago behintzat, nahiz eta ezin den jakin nola aterako den».

Guzti honi forma ematen hasteko, urriaren 22an, asteartean, dute lehen hitzordua jarria lau herrietako eragileei eta emakumeei begira. Bidania-Goiatzeko balio anitzeko gelan elkartuko dira, 19:30etik 21:00etara. Aurpe-

giak ikusi nahi dituzte, eta elkar ezagutzeko dute helburu: «Oso garrantzitsua izango da gure arteko loturak egitea, gero lana elkarrekin egin ahal izateko», esan du Zelaia.

2008TIK LANEAN

Atzera urte asko egin, eta elkartzeko beharrak bultzatuta hasi ziren emakume asko etxetik ateratzen, eta eskulan edota elkartze horietan entzundakoetatik tiraka egin du bidea Saiaz mankomunitateak. 25 urte beteak ditu, eta berdintasunera begira, 2008an, diagnostiko bat eginez hasi ziren «beharra» ikusten zutelako: «Oso garbi ikusi zen familietan gizonen erantzunkidetasuna oso-oso baxua zela, eta emakumeen parte hartzea ere oso eskasa zela. Zaintza ardurak guztiz emakumeek eramaten zi-

tuzten, bai adineko eta baita umeetan ere. Era berean, etxetik kanpo lana egiten zuten emakume gutxi ziren, eta oso ezkatuta zegoen emakumeen kontrako indarkeria», aletu du egoera Elena Rikondo gizarte langileak. Eta parte hartze soziopolitikoan, «garai haietan, apenas zegoen emakumerik; langileak emakumeekin, baina politikariak guztiz gizonetzkoak ziren».

Bide luzea izan duen prozesutzat definitu du Agurtzane Zelaia lehendakariak, eta era berean «behar handia» zegoen gune bat zela. «Diagnostikoak lehenengo plana ekarri zuen», azpimarratu dute. 2011tik 2018ra arte luzatu zen I. Berdintasun Plana.

Bigarren planari heldu aurretik, ebaluazioa egin dute. «Kuantitatiboaz gain kualitatiboki ere landu eta jaso da, eta konturatu gara adar asko mugitu ditugula». Egindakoa jaso eta etorkizunean nora doazen ikusteko balio izan die. «Jasotze handi bat egin zen

eta oso garrantzitsua. Orain hor dugu lana, hori guztia, hau da, jasotako adar guztiak elkartzen», argitu du Zelaia.

«II. Berdintasun Planaren adar nagusi bat, foroa edota elkargunea sortzea da lau herrietako eragile ezberdinekin; berdintasuna lantzen ari diren eragileekin», gaineratu du Rikondok. Horrekin sare bat sortu eta indarrak metatu nahi dituzte. «Garrantzitsua da talde txikiak egotea eta bere esparrua izatea, baina askotan zure taldera mugatzen zara, eta bakarrik sentitzen zara, indarririk gabe. Elkartzea behar dugu, indarrak berritzeko», gaineratu du Zelaia.

Gai asko eta asko mahai gainean jarri dituzte, eta urteetan egindako lanak emaitzak eman ditu, eta aldaketa nabariak eman dira herrietan: «Martxoaren 8ko ekimenetako parte hartzean edota indarkeria matxistaren aurkakoetan izandako erantzunetan ikusten da», diote.



Udal ordezkariak alde aurretik egin dituzte foroak. ATARIA



«Berdintasun foro hori sortzeko, edo behintzat hitz egiten hasteko izango da»

MIREN ARANGUREN
EMAGIN

E. Maiz

Miren Aranguren Emagin elkarreko kidea da, eta Saiaz Mankomunitatearekin lanean ari da II. Berdintasun Plana egiten.

Hasteko, I. Berdintasun Planaren ebaluazioa egin duzue. Zer jaso duzue?

Iaz egin genuen ebaluazio kualitatibo bat, eta horretarako bertan parte zuten emakumeekin hitz egin dugu, talde eztabaida eta elkarriketa sakonak edukiz. Hortik ondorio batzuk ateratu genituen. Txostena nahiko potoloa bada ere, indargune batzuk topatu genituen. 2011n, berdintasun plana hastean babes instituzionala izan zuen, eta horren bueltan babes handia sortu zen, mankomunitatea osatzen duten lau udalerrietan. Berdinbidean programak ere iruditu zaigu alde jokatu zuela. Hau, aldundiak herri txikietarako martxan jartzen duen lan plangintza da, eta horrek Saiaz mankomunitatean egin nahi zen ibilbidea babestu zuen. Herri ezberdin, baina mankomunitate bat eraikita izateak ere uste dugu lagundu zuela berdintasun planaren zenbait egitasmo aurrera eramaten.

Urte guzti horietan aldaketa-rik eman da?

Nahiko orokorra eta oso ohikoa da Euskal Herrian genero rolak oso markatuak egotea, eta baita eremu publikoa eta pribatuaren artean sekulako aldea egotea ere; hori topatu genuen. Baina egia da berdintasun plana martxan jarri zenetik emakumeen ahalduntzea eta balio batzuen aldaketak sustatu dela.

Zertan esan daiteke?

Ez ziren emakumeak jai batzordean ikusten edo herrietako ordezkari politikoan, eta urteetan garatu den ahalduntze ildolari esker, gaur egun, nagusi dira udalerri askotako eremu publikoari lotutako egitasmoetan. Egia da, ez dela berdina gertatu eremu pribatuari dagokionean. Etxeko eta zaintza lanei dagokionean, emakumeek, oraindik orain, presentzia handia dute. Ez gizonen, ez eta emakumeen aldetik ere, ez da aldatu. Ondorio orokor moduan esan daiteke. Erantzunkidetasuna oraindik erronka handia da Saiaz. Bestetik, emakumeen aurkako indarkeria guretzat ezustekoa izan

zen, oraindik ere, nola kokatzen zen kanpo eragin moduan. Tabu izaera badu, eta bertan gertatzen ez den moduan kokatzen da. Indarkeriak adierazpen asko dituela ulertu behar dugu, eta eremu askotan ematen dela.

Gauregun, zertan ari zarete?

Berdintasun plana babes sare batean eta jende askoren borondatean sostengatu zen, eta hori guztia egituratzeko premia badago. Uste dugu bultzada handia emango liokeela foro feminista bat, emakumeen mahai bat edo kontseilu baten sorrerak, bai zeharlerrotasunari eta baita herrietan eragiteko gaitasunari ere. Mankomunitate guztiko emakumeak bilduko lituzkeen gune bat, alegia, eta hori da orain abiatuko dugun prozesuaren helburuetako bat.

Zein da zuen egitekoa?

Guk prozesua lagunduko dugu. Gure funtzioa da bertakoen iritzia jaso, horiek sistematizatu, eta haien beharrei eta desioei izaera tekniko eta politiko bat ematea. Horretarako fase ezber-

dinak planteatu ditugu. Hasteko, herrietako ordezkari politiko eta teknikoei lan bat egingo dugu beraien premiak jasotzeko, eta beste fase batean, berdintasun foro horren sorrera eta parte hartze prozesua abiatuko ditugu. Gure helburua erantzunkidetasuna, emakumeen ahalduntzea eta balio berriak, eta baita indarkeria eta baita gobernantzari lotutako gaiak ere lantzea da, talde bat sortzeko helburuarekin. Eta bukatzeko hirugarren fasean jasotako guztia txosten batean jasoko dugu berdintasun estrategiaren bideorri bilakatzeko. Oso borondate ona dago udalerrietan eta horrek asko erraztuko du gure lana.

Hilaren 22an emakumeei begirako hitzordua jarri duzue.

Berdintasun foro hori sortzeko, edo behintzat hitz egiten hasteko izango da; Saiaz mankomunitatean berdintasunarekin lotuta emakumeek ikusten dituzten beharrak jasotzeko. Hiru saio egingo ditugu hasiera batean, eta 22an izango da lehenengoa.

Afrikako emakumeen ahalduntzea laguntzeko afaria, bihar

Amasako Hika txakolindegian, sukaldari izan nahi duten Kenyako 13 emakume laguntzeko elkartasunezko ekimena izango da

Jon Miranda Amasa

«Lucy Wamaitha naiz. Iazko irailetik Kibondeni eskolan ari naiz eta orain arte asko ikasi dut. Nire ama duela 14 urte hil zen eta sarrrera guztiak ospitaleko fakturak ordaintzen joaten zaizkio aitari, aspaldian gaixo dago eta. Lanean gogor dabilen ikaslea naiz eta erabakitasun handia dut. Nire ikasketak amaitzeko laguntza behar dut ordea». Wamaithak eta Kenyako beste dozena bat emakumek egindako eskaerari kasu egingo diote hainbat sukaldarik, eta dirua biltzeko elkartasun afaria egingo dute bihar 19:30etik aurrera Amasako Hika txakolindegian. Menua, Gipuzkoako bost emakume sukaldarik prestatuko dute.

Duela urte eta erdi sortu zuten *Afrika, Elkarrekin Bai* proiektua Harambee GK Eren barruan eta Kenyan sukaldaritza ikasketak

egiten ari diren emakumeak laguntzeko asmoz jarri zuten abian. Kibondeni (Nairobi) eta Tewa (Mombasa) eskoletan ari diren 12 gazte lagundu zituzten iaz, eta beste 13ri ordainduko dizkiete ikasketak orain.

Afrika, Elkarrekin Bai proiektuko koordinatzailea da Juan Carlos Mujika eta Kenyan izan zen iaz: «Kibondeni eskola ezagutu nuen eta ikusi ahal izan nuen nola ari diren 300 emakume sukaldaritza ikasketak egiten. Bide batez, gazte horiek non bizi diren ikusteko aukera izan nuen eta kontraste izugarria dago. Xaflaz egindako etxetxetan bizi dira, baldintza gogorretan, ur hornidurarik eta argindarririk gabe».

Ostalaritza eskolaren matrikula ordaintzeko laguntza eman nahi diete *Afrika, Elkarrekin Bai* proiektutik, sukaldaritza ikasketak amaitu ditzaten. «Ikasturtea

erdibidean uzteko arriskua izaten dute, askotan 12 edo 13 urterekin ezkondu egiten dituztelako gurasoek. Orduan, etxetik aterare ez dira egiten. Titulazioa lortuz gero, berriz, autonomia handiagoa izaten dute eta aukera dute lan bat lortu edo negozio propioa muntatzeko».

HIKAN HITZORDUA

Kenyako 13 emakume hauen ikasketak ordaintzeko ekimen ezberdinak bideratzen dituzte *Afrika, Elkarrekin Bai* proiektutik, besteak beste, elkartasun afariak. Iaz Gipuzkoako 20 sukaldarik egin zuten bat ekimenarekin eta 12 emakume keniar lagundu zituzten Irunen eta Amasan antolatutako afariekin. Aurten, Hika txakolindegiko hitzordua errepikatuko dute eta bertako sukalde buru Roberto Ruizek proposatuta bost emakumek prestatuko dute biharko menua: Frontoi jatetxeko Sonia Tapia, Ibañez Gozona gozotegiko Raquel Ibañez, Botarri erretegi Leire Etxezarreta, Galerna jatetxeko Rebeca Barainka eta Xarma tabernako Aizpea Oianeder.

«Menu berezia izango da. Ez dute gehiegi aurreratu nahi izan,

bertaratutakoek sorpresa har dezaten, baina afrikar ukitua izango du», esan du Mujikak.

Bihar 19:30ean egin dute hitzordua Amasan dagoen txakolindegian. Proiektua aurkeztuko dute lehenik eta Iruko taldeak musika emanaldia eskainiko du ondoren. 20:30ean abiatuko da afaria eta 50 euro balioko du menuak. WhatsApp bidez eman behar da izena parte hartzeko, 626 79 82 51 telefono zenbakian, izena eta zenbat afaltiar izango diren adieraziz.

Jatorriz afrikarrak diren eta gaur egun Euskal Herrian sukaldari bezala aritzen diren bi emakume ere izango dira bihar Hikan, izan duten esperientziaren berri emateko. «Ikusita zein ilusio duten neska hauek, nola ekiten dioten ikasteari, merezi du zerbait egitea. Hemen eman dezakegun laguntza txikia, Kenyan mesede handia da. Emakume hauek behar dutena trebakuntza, ezagutza eta ahalduntzea da, familia oso pobreetan bizi direlako. Etorkizuna beren kabuz aurrera ateratzeko bitartekoak eskaini diezaizkiekegu, laguntza horrekin sekulakoak egin ditzakete Afrikan», baieztatu du Mujikak.



Kenyan sukaldaritza ikasketak burutzen ari diren emakumeak. ATARIA

Ikasturtea abiatuko dute Irurako ludotekan eta gaztelekuan

Udaleko haur, nerabe eta gazteen sustapen sailak, parte hartzeko gonbidapena luzatu die herriko haur eta nerabeei

Erredakzioa Irura

Irurako Ludoteka herriko 4 eta 11 urte bitarteko haurrei dago zuzendurik eta gaztelekua, berriz, 12 eta 17 urte bitartekoei. Peio Arrese-Igor kalean dagoen kultur gunean kokatuta daude bi zerbitzuak. Herriko haur eta nerabeei aisialdiaren bitartez eta hezitzailearen laguntzarekin euskaraz, modu aktiboan eta parte hartzea sustatuz, gozatzen eta garatzeko aukera ematea da ludotekarekin eta gaztelekuarekin bultzatu nahi duten helburua. Irurako Udaleko haur, nerabe eta gazteen sustapen sailak, hauen beharretara egokitutako gune hauetan, jarduera programa zabal eta askotarikoa eskainiko dela dio. «Haurrak eta nerabeak, gure zerbitzuan goza dezaten, tailerrak, talde jokoak, irteerak, familientzako tailerrak eta abar antolatzen dira».

Haurren zerbitzua, astearte, asteazken eta ostegunetan zabalduko da 16:30etik 19:00etara eta adinaren arabera bi txanda bereiziko dituzte. Nerabeen zerbitzua, berriz, ostiral eta larunbat arratsaldeetan egongo da zabalik. Zerbitzu hauez gozatu ahal izateko ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea eta Irurako haur eta nerabeek horretarako aukera ikasturte osoan dute, www.irura.eus webgunean, online.

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEAZKENA, 2019KO URRIAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEAZKENA 16

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Pobreziaren aurkako jardunaldien barruan, ipuin kontalaria, 18:00etan.

Villabona. Galtzaundiren eskutik, Euskaraz bizi ahal gara! hitzaldia, Su-bijana etxean, 18:30ean.

Tolosa. Etxeko langile migratzaileen egoera, ikerketaren aurkezpena, Kultur etxean, 18:30ean.

Tolosa. Mikologika. Casino elkartean, Sonia Tapia eta Xabier Martinez sukaldarien eskutik, perretxikoetan oinarritutako sukaldaritza tailerra, 19:00etan.

Tolosa. Joxean Lasa eta Joxi Zabala. 36. urteurrena. Bakea eta Askatasuna, 19:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, eguneko berriak, eskualdeko alkateei elkarriketa (gaurkoan, Silvia Moneo Belauntzako alkatea), Joseba Landa Bartzelonatik, Tolosaldea Garatzenen tartea eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musikala.

11:00. Desafioa. Herri kirolak Asier Imazek gidatuta, Jose Angel Sarasolarekin.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arroza sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

16:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa Imanol Artola Felixekin.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Ur eta lur
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe
22:30. Ireki kaxa
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.

EGURALDIA



Gaur. Zerua oso hodeitsu egongo da, egunaren hasieran erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin, gero hodei trinkoagoak agertuko dira. Baliteke egunaren bigarren partean euri txikia egitea noizbehinka. Hego-mendebaldeko haizea bizi ibiliko da. Tenperatura minimoak nahikoa igo eta maximoak gutxi edo nahikoa igoko dira.



Bihar. Egunaren lehen zatian hego-mendebaldeko haizea ibiliko da eta, fronte baten eraginez, euria egingo du. Tenperaturak behera egingo du.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako grafikagintza sektoreko langileak grebara deitu dituzte LAB, ELA eta UGT sindikatuek azaroaren 4tik 8ra; «hitzarmen duina» sinatu arte borrokan jarraituko dutela adierazi dute.

Bost greba egun gehiago



Urriaren 25ean manifestazioa egin zuten grafikagintzako langileek Tolosan. JOSU ARTUTXA

Erredakzioa

Zortzi greba egun egin dituzte Gipuzkoako grafikagintza sektoreko langileek, eta deialdi berri bat erregistratu dute LAB, ELA eta UGT sindikatuek. Azaroaren 4tik 8ra izango da, beste bost egun, beraz. «Negoziazioari ekin eta hitzarmen duina exijitzeko» helburuz deitu dituztela langileak grebara esan dute sindikatuek, eta borroka «sektoreko langile guztientzako hitzarmen duina sinatuko den egunean» amaituko dela azaldu dute.

«Funtsezko gauzak» eskatzen ari direla adierazi dute sindikatuetako ordezkariak: «egun sek-

toreak bizi duen egoera onarekin bat datozenak. KPItik gorako soldata igoerak, lizentziak gaurkotzea eta hobetzea, kontratazioa hobetzea eta estatuko hitzarmenaren mehatxuaren aurrean hitzarmena blindatzea». Neurri hauek guztiak, «justuak» izateaz gain, «lorgarriak» direla ere gehitu dute. «Urteetan sakrifizioak jasan ostean, sektoreko langileok behar-beharrezkoak ditugu».

Adierazi dutenez, «patronalak sindikatueta eskaerei entzungor egiten dien bitartean, gatazka areagotuko da». Patronalak «aukeratu» egin behar duela esan dute. «Enpresariak badakite: zortzi greba egun egin ditugu

eta gehiago egingo ditugu akordio justua lortu arte. Lantokiak aste osoa geldiaraziko ditugu ADEGI langile guztiontzako akordio justu bat negoziatu gabe jarraitzen baldin badu».

LAB sindikatuak bere aldetik, negoziaketa eta akordioa «lehenesten» dituela esan du. «Baina ate guztiak ixten zaizkigunean, borroka egitea beharrezkoa izateaz gain, erantzukizun ariketa bat da».

Greba egunez gain, mobilizazio ugari ere egingo dituztela aurreikusi dute, eta sindikatuek deigarriak egin dieten grafikagintza sektoreko langile guztiei mobilizazioetan parte hartzeko.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

Prezioa

14€
28€
40€
46€

Atarikideek

10,50€
21€
30€
34,50€

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez